

begira



47. zk.
2019ko abendua



ULMAren jarduera soziala 2019



AURREZ AURRE:
LANDER DIAZ DE GEREÑU.
ULMA Taldeko lehendakaria



AURREZ AURRE <
***“ULMA Taldea pertsonak eraiki
 dugu eta horrela beharko du izan
 etorkizunean ere”.*** LANDER DIAZ DE
 GEREÑU. ULMA Taldeko lehendakaria



ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK <
**Aitor Ortueta, Jon Albes, Pablo Uzkudun
 eta Ander Ibarguren.**
 Mendizaletasunean bat eginda



ARGITARATZAILEA:

Grupo ULMA S. Coop.
 Garagaltza auzoa, 51
 20560 OÑATI

Tel.: 943 25 03 00

ZUZENDARITZA:

Carlos Sarabia
 csarabia@ulma.com

EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Joseba Alberdi, Elena Goirizelaia,
 Maria Sendin, Raúl Illaro, Irene Moreno,
 Edurne Unzueta, Nerea Burgoa,
 Jone Zamakola eta Carlos Sarabia.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Igone Basterra
 ibasterra@ulma.com

INPRIMATEGIA:

Gertu S. L.



> ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA
 ULMA Architectural Solutionsek **bi eraikin
 enblematikoren fatxadak eraberritu ditu**
Arrasaten: Eguzki Dorrea eta Ikerlan



> ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA
 ULMA Handling Systemsek **gutziz
 automatizatutako logistika zentro
 berria** garatu du Israelen

2019ko abendua

4 **albisteak eta gaurkotasuna**

ULMA Agricolak proiektu bat egin du tomate hazitegi baterako Nigerian

ULMAren soluzio integralak 2019ko Joko Panamerikarretako kirol gunetan

ULMA Conveyor Components arrakasta handiz aritu da Peruminen

Asier Olaguenaga da ULMA Embedded Solutionseko gerente berria

Erraz irekitzeko ontzia flow packean industria medikorako

16 **ULMA Taldeko beste talentuak**

Aitor Ortueta, Jon Albes, Pablo Uzkudun eta Ander Ibarguren. Mendizaletasunean bat eginda

18 **aurrez aurre**

Lander Díaz de Gereñu. ULMA Taldeko lehendakaria

20 **erreportajea**

ULMA Embedded Solutionsek 10 urte bete ditu

22 **erreportajea**

ULMA Taldean hitzartutako jantokietarako ordainketa sistema berria

24 **jarduera sozialak**

ULMAren jarduera sociala 2019

28 **agenda eta iradokizunak**



ULMA CONSTRUCTION

ULMA enkofratuen izaera modularra, gakoa Antzuolako zubibidean

ULMAK enkofratu, zinbria eta aldamiotako soluzio integralak eskaini ditu Deskargako erreka gaineko zubibidearen parte den 495m-ko tablero baten eraikuntzan, Antzuola herrian, Gipuzkoan. ULMA enkofratu sistemen aldakortasunak eta malgutasunak erronka zorrotzei aurre egiteko aukera ematen du, esaterako, Espainiako abiadura handiko azpiegituren eraikuntza proiektuen exekuzioan.

Proiektuaren konplexutasunak, terenoaren orografia eta exekuzio epe estuak medio, bezeroaren exigentziekin bat zetorren produktuaren teknologia, erantzun gaitasuna eta materialen hornikuntza eskatu du.

Izkina aldakorreko taula exekutatzeko zinbria autoluzagarria erabiltzeko ezintasunaren aurrean, ingeniariak taldearen proposamena izan zen zinbria portikodun sistema erabiltzea, H-33 zertekin, T-500 karga handiko dorreak, eta ENKOFORM H-120 formako enkofratuak. Produktu horiek errendimendu ezin hobek eman dituzte karga handiei eusteko, 30 m baino gehiagoko altueran eta bermeen arteko gehienezko 70 m-ko argiekin. **Sistemen izaera modularrak eskatutako dimentsioetara egokitzea ahalbidetzen du.**

Bezeroarekin etengabeko komunikazio

eta elkarlanean aritzeak ahalbidetu du produktu bakoitzaren errentagarritasunik handiena ateratzea eta segurtasuna bermatzea. Garrantzia logistikoko eremu bat izanik, baita orografia konplikaturako ere, babeserako atarape bat muntatu da BRIO aldamiorekin. Hainbeste joan-etorri dituen bide batean zirkulazioa etetea eragozteaz gain, eta objektuen erorketen aurka babesteaz gain, atarapea desenkofratze prozesuan horma atalen euskarri gisa funtziona zezan diseinatu zen.



ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systemsek LOGISTICS 2019 azokan parte hartu du berriz ere

Beste urte batez, ULMA Handling Systemsek LOGISTICS azokan parte hartu du, azaroaren 13 eta 14an, Madrilan. Aurtengo VII. edizioa ULMAK, bere bezero eta gertukoek eta interesa zuen publikoak bat egiteko topagune bilakatu zen, eta azken berritasunak eta intralogistikako munduaren aurrerapen teknologikoak ezagutzeko aukera izan zuten.

ULMAK intralogistikako soluzioen erakusketa egin zuen –smart warehouse–, zeinaren presen egungo eta

etorkizuneko premiak gogobetetzeko diseinaturik baitaude, eskakizunen eta prozedura logistikoen moldagarritasun handiagoa ahalbidetzen dutelarik.

LOGISTICS azoka industriarekin batera bilakatzen ari da, eta berrikuntza nagusiak eta azken garapenak, industria eraldatzen ari diren joerak eta ideiak, sektoreko hornitzaile nagusiak eta ezagutza emateko gai diren adituak aurkezten ditu.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Architectural Solutionsek webgune berria estreinatu du

WEBGUNE IKUSGARRIA, SOILA ETA BEZEROARI BEGIRAKOA, GAILU MUGIKOR GUZTIETAN IKUSTEKO DISEINATUA ETA EDUKIAK MERKATUKA PERTSONALIZATZEKO EGITURATUA.

Ikusgarria, soila eta bezeroari begirakoa


“Gutxiagorekin gehiago” lemapean, oso estilo ikusgarria eta soila bilatu da, irudiari garrantzia emanez, testuaren aurretik. Estetika eta diseinua hobetzearen aldeko apustua da, edukien antolamenduan oinarritua: erabiltzaileek informazioa erraz aurkitzeko webgune bat diseinatu da.

Gainera, edukiak erabiltzailearen ikuspegiara egokitzeko hautua egin da, bezeroak darabilen hizkuntzan enfokaturik. Erabiltzaileak darabiltzan hitz gakoak landuz optimizatu da, bezero potentzialak erakartzeko, bai bilatzaileetan, bai sare sozialetan. Komunikazio estiloari dagokionez, “for people by people” lemapean, hizkuntza gertu eta freskoagoa, gaurkotu eta gogoraeraza definitu da, pertsonari zuzendua, bezero potentzialarengana errazago iristeko eta edukiarekin harrapatzeko helburuarekin.

Mugikorretara egokitua eta merkatuko egituratua

Gailu mugikor guztietan egoki ikusteko prestatutako webgunea da, eta webgunea hizkuntza ezberdinetan edukitzetik merkatuen arabera egokitzera pasatu da. Modu horretan, edukiak egokitu egiten dira helburu duen merkatuen arabera. Horrela, webgunean 8 hizkuntzatan identifikatutako 11 merkatu ditu. Berritasunen artean, merkatu berriak ireki dira, Erresuma Batua eta Estatu Batuak kasu.

Soluzioen aurkezpenari dagokionez, bi segmentu nagusitan sailkatu dira: DRAINATZEA ETA ARKITEKTURA, eta azken horren barruan Fatxada Aireztatuak, Itxiturak eta Aurrefabrikatuak.



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

Asier Olaguenaga, ULMA Embedded Solutionseko gerente berria



Urriaren erdialdetik, ULMA Embedded Solutionsek zuzendari berria dauka. Asier Olaguenaga, telekomunikazioetako ingeniaria MBArekin eta taldeen kudeaketan eta enpresa teknologikoetan esperientziaduna, ULMA Embedded Solutionseko gerentzia sartu da. Zuzendaritza eta kudeaketako gaitasunak eta ezagutza teknikoak izango dira Negozioak proposatutako helburuak lortzeko eta etorkizun oparoa lortzeko gakoak.

ULMA AGRICOLA

ULMA Agricolak tomateen laborantza hidroponikoa egiteko proiektu bat egin du Mexikon

Bezeroa Aguascalienteseko eskualdeko enpresa garrantzitsuenetako bat da, eta produkzioa neurri handi batean AEB eta Kanadako esportaziora zuzentzen da. Bere apustua laborantza berrikuntza etengabea da, ekoizpen sistemarik eraginkorrenak lortzeko.

ULMA Agricolak tomatearen laborantza hidroponikorako 2.1 hektareatarako diseinatu eta hornitu duen soluzio integrala 12.80 modeloekin egin da, kanal azpiko 6 metroko altuerarekin eta tximeleta leihoko aireztatze batekin.

Ekipamenduak hau dauka: kamera puzgarri bikoitzeko estaldura, haize bidezko berogailua, birzirkulatuak eta ureztaketa hidroponikoa, negutegiaren guztizko automatizazioarekin.

Bezeroak bigarren aldiz egin du ULMA Agricolaren alde bere inbertsio proiektuetan.



ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

Intruck Orgetako ate irekien 2. jardunaldi arrakastatsua



Intruck Orgak, ULMA Manutentzio Zerbitzuetako negozio lerroak, **profesionalei erabilitako makineria saltzen jarduten du**, eta lehenetsuneko bezeroei begirako ate irekien 2. jardunaldia egin zuen, salmantan arrakasta handia lortuta.

Urte hauetako fideltasuna aitortzeko helburuarekin, enpresak eskari handia duten orga jasotzaileen aukera zabala jarri zuen jardunaldira bertaratutako eskura, zaindua eta kategoria gorenekoa, Alcalá de Henaresen, Madril.

ULMA Manutentzio Zerbitzuetako makineria erabiliaren jardueraren arduradun Asier Agirregomezkortak adierazitakoaren arabera, ekitaldia guztiz arrakastatsua izan da asistentzia

zein bezeroen gogobetetzeari dagokionez. Gainera, eguna amaitzeko koktel bat eta urdaiazpiko iberikoko dastaketa bat eskaini zen, parte hartzaileen gozamenarako.

Salmenten arrakasta, bezeroek egindako harrera onarekin batera, erabakigarria izan da Intruckek konpromisoa har dezan aurrera begira antzeko ekitaldiak antolatzen.



ULMA PACKAGING

ULMA Packagingek eta Sealed Airek jasangarritasunari buruzko ekitaldi bat antolatu dute

Joan den irailaren erdialdean ULMA Packagingek eta Sealed Airek **jasangarritasunaren inguruko hiru jardunaldi** antolatu zituzten elkarrekin, **"Skin ontziratzea. Apustu jasangarri bat" izenburupean**. 160 bezerotik gorako asistentziarekin, nabarmentzekoak izan ziren ECOEMBEseko Maria Perezen, ITENE Zentro Teknologikoko Cesar Aliagaren eta IRTAko Elsa Lloren eta Begonya Marcosen hitzaldi interesgarriak.

Hitzaldiak amaitu ostean, parte hartzaileek bertatik bertara egiaztatu ahal izan zuten ULMA Packagingen zein Sealed Airen ontziratze ekipamenduek eskaintzen dituzten abantailak. **Jasangarritasunari dagokionez**, bereziki nabarmendu ziren **skin ontziratzeak gainerako ontziratzeekiko eskaintzen dituen abantailak** ingurumen inpaktua minimizatzen, eta, halaber, elikagai fresko zein prozesatueterako enbase aukera handia ikusi ahal izan zen.

Hitzaldiak eta makinaren erakustaldiak oso positiboki baloratu zituzten bertaratutakoek. Gainera, proposamena elkarrekin egitea ere oso egokia izan zen.

ULMA PACKAGING

Legazpiko ULMA Packagingeko langileek bat egin dute haurren minbiziaren sentsibilizazioaren alde

Pasa den irailean zehar haurren minbiziaren sentsibilizatzeko nazioarteko hilabetea garatu zen. 1978az geroztik, urre koloreko xingola eta argia dira mundu guztian minbiziaren paziente gazteenak ordezkatzeko dituen sinboloak, gaixotasun horren aurka borrokatzeko ausardiaren balioa agerian jartzeko. Legazpiko ULMA Packagingeko lankideek ekimen horrekin **bat egin zuten, urre koloreko xingolaren irudia zuen kalkomania bat jarrita**. Argazkiak egin eta ASPANOGLren (Gipuzkoako Haur Onkologikoen Gurasoen Elkarte) sare sozialetan argitaratu ziren.



<< Langileen argazki batzuk, urre koloreko xingolarekin

ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systemsek guztiz automatizatutako logistika zentro berri bat garatu du Israelen

BALADIK, ISRAELGO ELIKADURA ENPRESA LIDERRAK, BANAKETA ZENTRO BATEAN ZENTRALIZATUKO DU BERE LOGISTIKA, ETA ERABAT AUTOMATIZATUTA EGONGO DA, ULMA HANDLING SYSTEMSEN INTRALOGISTIKA PROIEKTUARI ESKER

Baladi Israelgo elikadura enpresa handienetako bat da, bere ibilbidea 1916an hasi zuena. Baladik ekoizpen planta bat dauka, inportazioko elikagai ugari prozesatu eta ondoren saltzeko. Horretarako, **Baladi ULMA Handling Systemsekin batera ari da bere banaketa zentro berria garatzen, erabat zentralizatu eta automatizatu, herrialde osoan zerbitzua eman ahal izateko, Kiryat Shmonatik, herrialdearen iparraldean, Eilaterraino, hegoaldean.**

Gaur egun, Baladik biltegi konbentzionalak dauka herrialdearen barrena banatuta. Banaketa zentro automatizatu berriari esker, Baladik herrialde osoari eman ahal izango dio zerbitzua modu zentralizatuan.

Horretarako, **ULMA Handling Systemsek intralogistikako automatizazio proiektu integral bat diseinatu du, aurretiaz ekoizpen plantan**

prozesatutako elikagaiak jasotzeko. Produktu guztiak STV (Sorting Transfer Vehicle) garraio automatikoko sistema baten bidez sartuko dira zentroan, eta produktuak biltegi bideratuko ditu. Ondoren, despaletizatze postuak egongo dira, merkantzia arinen biltegi garraiatzeko, zeina 8 transjasogailuk kudeatuko baitute. **Biltegiak 35.000 produktu baino gehiago hartzeko gaitasuna izango du, eta bere mugarrietako bat izango da elikagaiak -24°C-ko temperatura kontrolatu batean mantentzea.**

Ondoren, Baladiko banaketa zentroak eskaerak prestatzeari ekingo dio. Biltegi gune horretan, ULMAk prestaketarako postu ergonomiko bat gehituko du, ERPAL, eskuzko postu bat eta paletizazio automatikoko IK PAL robot bi, edozein karga motatako paletizazio bikainerako sistema

berritzaile eta erreferentea. Gainera, herrialde osoan instalatzen diren mota horretako lehendabiziko robotak izango dira.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Architectural Solutionsek bi eraikin enblematikoren fatxadak eraberritu ditu Arrasaten: Eguzki Dorrea eta Ikerlan

Berriki ikusi dugu Arrasateko bi eraikin ezagunek haien irudia berri dutela.

EGUZKI DORREA

Eguzki Dorre ezaguna 1971n eraiki zen, eraikin altuak eginez lekuri txikiena okupatu eta inguruko berdeguneak maximizatzeko joerari jarraituta. Ia 50 urte dauzka eta herriko eraikinik altuena izaten jarraitzen du, bere 20 solairuei esker.

Eraberritzean bilatu diren **helburuak efizientzia energetikoa hobetzea, hezetasunak deuseztatzea eta estetika hobetzea** izan dira.

ULMAk **zerbitzu integrala** eskaini du, proiektuko fase guztiak jasoz, eta prozesuan inplikaturako guztiei egin die mesede: arkitektoak, eraikuntza enpresa, instalatzaileak eta etxejabeak. Erabilitako plaken materiala ere, **polimero hormigoia**, proiektu honen elementu bereizlea izan da. Material horren abantaila bat da **ehundura eta kolore** aniztasuna duela, baita suarekiko erresistentzia oneko materiala dela. Erabili den fatxada aireztatuaren sistemak **profil jarraitua** du, eta horrek ikiditen da etorkizunean plaken erori ahal izatea. Gainera, plaken artean juntura minimo bat dauka, eta horri esker barruko kameran sartzen den ur kantitatea minimoa da. Estetika mailan ere, plaken artean dauden 3 mm eskas horiek jarraitutasuna eta garbitasuna ematen diote fatxadari.

Eguzki Dorreko hainbat bizilagunek esan dutenez, eraberritzearekin aldaketa handia nabaritu dute etxe barruko erosotasunean, batez ere neguan. **“Inbertsioak merezi du, lehen minututik nabaritzen baita aldea barruko tenperaturan”**.



IKERLAN

ULMAk, halaber, estaldurarako materialik berritzaileenak hornitu eta instalatu ditu zentro teknologikoko egoitzaren fatxadarako, 1974an eraikitako harribitxi arkitektonikotzat jotzen den horretan.

Eraikinaren **geometria konplexuei doitzen zaizkien soluzio teknikoak** eman dira. 6.220 m²-ko fatxadari estaldura eman zaio, polimero hormigoizko fatxada aireztatuko sistema integratuz, **isolamendu termiko eta akustikoarekin**, sailkapen energetikoa hobetu ahal izateko.



Bi proiektuetan kooperatiben arteko lankidetzak garatu da: LKS KREAN, ingeniari eta arkitektura sektorean erreferentia, IKERLAN eta ULMA Architectural Solutions. MONDRAGON Taldeko hiru kooperatibak elkarlan sendoan aritu dira Gipuzkoako herri honetako eraikin enblematiko horiek berritzeko.

ULMA CONSTRUCTION

11 Hoyt eraikina, Brooklyneko hiri paisaian ikuspegi berri bat eskainiko duen silueta originala

New Yorkeko Brooklyneko 52 solairuko 11 Hoyt bizitegi eraikinaren eraikuntza proiektua Structure Tech New York, Inc eta ULMAren arteko talde lan eta kolaborazio sakonaren adibide da, hormigoizko egitura guztiaren eraikuntzarako enkofratu eta aldazio soluzioak eskainiz.

Eraikinak 180 m-ko altuera eta 57.000 m² inguruko azalera izango du, horietatik 55.000 bizitegiarako, eta 2.000 beheko solairuko eta atikoko merkataritza espaziorako, eta lurrazpiko 147 aparkaleku plaza.

Aurreko proiektuetan CC-4 aluminio modularreko lauzen enkofratua erabili osteko esperientzia ona erabakigarria izan da berriz ere sistema aukeratzeko, apeo moduan ALUPROP aluminiozko eskora erabiliz. Lauza modularreko enkofratua sistema arina eta muntatzen erraza da, segurtasun eta errendimendu maila altua eskaintzen duena.

Proiektu honetan, enkofratu modularreko CC-4 lauzako 4.000 m² inguru behar izan ziren, eta Structure Tech NYi ahalbidetu zion

exekuzio epeak betetzea, 3 eguneko hormigonatze zikloekin. **Barruko zutabe eta hormatxoak egiteko MEGALITE enkofratuko 200 m lineal esleitu ziren.**

Orotara, ULMAk aluminiozko 11.000 eskora baino gehiago hornitu zituen lauzen eta azpi-azpiko 6 solairuen apeo eta zutoinetarako.



ULMA AGRICOLA

ULMA Agricolak Greentech 2019an parte hartu du

GreenTech Amsterdam hortikulturako teknologiararen inguruko profesionalentzako topagune nagusia eta sektoreko erreferentziako feria da.

GreenTech 2019 aurten ekainaren 11tik 13ra ospatu da, eta edizio onenetako bat izan da, 470 erakusketariren parte hartzearekin, 114 herrialdetako 12.489 bisitariren asistentziarekin, aurreko edizioarekiko %20ko hazkundea izan duelarik.

ULMA Agricolaren standak bisitatu zutenek aukera izan zuten azken urtean ULMA Agricolak instalatu dituen proiektuetan eskaintutako berrikuntzak eta soluzioak bertatik bertara ezagutzeko.

ULMA Agricolak sektoreko azoka honetan eta beste batzuetan egoteko apustua egiten jarraitzen du, negutegiaren eta soluzio integralko

proiektuen nazioartekotze estrategia eta mundu mailako merkaturan lidergo posizionamenduari erantzunez.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

III MMH azokan presente, meatzaritzako ekitaldi handienetakoan

Urriaren 15etik 17ra, MMH (Mining and Minerals Hall) topaketa egin zen Sevillako Kongresu eta Erakusketen Jauregian (FIBES), eta nazioarte mailako meatzaritza industriako profesionalak elkartu ziren. Mundu mailako MMH topaketan, meatzaritzako egungo eta etorkizuneko ezagutzek hitzordua egin zuten, **networkingerako, partekatutako esperientziarako eta meatzaritzako azken aurrerapenen apustu bateraturako aukera bikaina eskainiz, hori guztia berrikuntzaren, jasangarritasunaren eta gizartearen aurrerabidearen ildotik.**

150 enpresak, 800 kongresukidek eta milaka bisitarik parte hartu dute FIBESek eta Enpresa Ikertzaile, Erauzketari, Mea-metalurgiako Transformazaiak eta Zerbitzuen laguntzaileen Elkarteak (Aminer) elkarlanean antolatuta, eta

meatzaritzako sektore osoa bildu du: meatzaritza metalikoa, industriarako arroka eta mineralak, agregakinak, eta baita industria eraldatzailea ere, metalurgiaren edo porlanaren sektorean ordezkatuta.

ULMA Conveyor Componentsek ezin zuek ekitaldi hori galdu, **eta aukera baliatu zuen "Meatzaritzako arrabolen 4.0"**



Industria" aurkezteko. Bertaratutakoek interes handia adierazi zuten, eta, gainera ULMA Conveyor Components erakusketari gisa ere joan zen, eta stand bat eduki zuen bere proiektu eta produktuak ezagutzera emateko, bezero eta kontaktu berrien bisita bolumen handiarekin.

ULMA CONSTRUCTION

Blockbuster Mall Ukrainako merkataritza eta aisia gune handiena bilakatu da

Kieveko etorbide nagusian estrategikoki kokatua eta hiriburuko bizitegi eremu jendetsuenetakik hurbil, Blockbuster Ukrainako merkataritza gune handien bilakatu da, 450.00 m²-ko hedadurarekin. Merkataritza gunearen bisitariak gastronomia, moda eta aisialdirako eskaintza zabala aurkituko du. Ildo horretan, inaugurazioa egin baino lehen, Blockbuster merkataritza guneak European Property Awards nazioarteko sari prestigiotsua eskuratu zuen; nazioarteko mailan aitortutako bikaintasunaren sari bat da, eta Txikizkako Garapen Onenaren kategorian eskuratu zuen Ukrainak.

ULMAk Ukrainan duen filialak gauzatu du eraikitze prozesuaren kontrol guztia, eta laguntza tekniko eta profesionala eman du proiektuaren garapen osoan zehar. Merkataritza gunearen egitura bertikalak eraikitze erabilitako soluzioa ORMA enkofratu sistema modularraren eta CLR zutabe zirkularren enkofratuaren arteko konbinazioa izan da, horrelako

eraikuntza proiektuetarako behar den akabera bikaina eman baitu. ENKOFLEX egurrezko habeen enkofratu eta T-60 marko zinbria izan dira aukerarik onena lauzak eraikitzeke.

Eraikuntza proiektuan parte hartu duten eragile guztien elkarlan onak, ULMAko profesional kualifikatuek

in situ ekindako ikuskapenak eta talde teknikoaren iradokizun guztiak betetzeak ahalbidetu egin zuen sistemak berrerabiltzea, eta horrek material, kostu eta denbora aurrezteak eragin zuen, bezeroarentzako errentagarritasun maximoa eta segurtasuna ekariz.



ULMA ADVANCED FORGED SOLUTIONS

ADIPEC 2019 azoka, Middle-East eskualdeko erreferentea

Azaroaren 11tik 14ra, ABU DHABI NATIONAL EXHIBITION CENTRE (ADNEC)-UAEn egin zen ADIPEC 2019 azokara stand propioarekin joan zen ULMA Forja S. Coop. Middle-East eskualdean erreferentea den ekitaldira 145.000

bisitaritik gora eta 2.200 erakusketari baino gehiago joan ziren, eta horien artean egon ziren Oil&Gas sektoreko enpresa nagusiak, nazionalak zein nazioartekoak. ULMA Forja, S. Coop.ek azokan parte hartu zuen, FLUIDEX elkarteak (Jariakinen

manipulazio prozesuko ekipamendu, soluzio eta teknologien Espainiako Elkarteak) beste enpresa batzuekin batera.

ULMA Forja S. Coop.eko jarduerak hazkunde garrantzitsua izaten ari da Middle-Easten end-userrekin lortutako homologazioei esker, horien artean egonik SAUDI ARAMCO, ADNOC eta abar. Hori ezinbesteko baldintza da eskualdean garatzen ari diren Oil & Gaseko proiektuetan parte hartu ahal izateko.

ADIPEC 2019 ohiko bezeroekin elkartzeko topagune bilakatu da, epe labur, ertain eta luzera aurkezten diren erroka eta aukeren jarraipena egiteko toki egokia izateaz gain.



ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

Orga Jasotzaileak 35 urte bete ditu merkatuan

Orain dela 35 urte OINAKAR S.Coop. sortu zen, Laboral Kutzaren Enpresa Dibisioaren ekimenez, merkatu azterketa bat egin eta gero, orduan logistikaren eta mantentze lanen sektorean negozio aukera bat zegoela identifikatu baitzen.

Ingurunearentzat oso garai zailak zirelarik, orga jasotzaileak fabrikatu eta banatzeko proiektua egiazko alternatiba izan zen Loyola Txokolateak itxteagatik arriskuan zeuden lanpostuak salbatzeko.

Orga jasotzaileen fabrikazio eta banaketa merkatuak garai oso zailak bizi zituen: Fenwick, merkatuko liderra, xurgatu egin zuten, eta Japoniako MITSUBISHI enpresarekin lankidetzak hitzarmen bat sinatzearekin batera hasi zen enpresa jarduerak. 1987an, OINAKAR OÑALAN Taldean sartu zen, gerora ULMA Taldea izango zenean, eta 1990etik aurrera kooperatibak ULMA Manutencion S. Coop. izena hartu zuen, bi jarduerak negozio aski bereizirekin: Orga Jasotzaileak eta Handling Systems.

Hainbat hamarkadaz egoitza sozial bera partekatu eta gero, 2010eko azaroaren 12an, ULMA Manutencion S.Coop.en bereizketa partziala



egitea erabaki zen, eta ULMA Orga Jasotzaileen negozioa ULMA Servicios de Manutención S. Coop. izeneko sozietate berrian sartzea.

Orga Jasotzaileak konpainiaren jarduerak –ULMA Manutentzio Zerbitzuak negozio original gisa– orga jasotzaileen gama oso-oso zabal baten banaketan zentratuta dago, bateko eta besteko bezero eta sektoreetatik datozen beharrei egoki erantzuteko, guztia ala guztia

Bezeroaren Arreta Zerbitzu bikainarekin, eta estatuaren %100 estaltzen duen Sare Komertzial eta Saldu Osteko Zerbitzu zabalarekin.

Duela 35 urte lanpostu askoren galera eragozteko helburuz sortutako proiektua da, eta orain dela gutxiago krisi globalean ziurgabetasun oro gainditzen jakin izan du; sektoreko enpresa erreferentea bilakatzen joan da, osatzen duten pertsona guztien ahalegin eta ilusioari esker.



ULMA TALDEA

ULMA 12. "Be Basque Talent Conference" topaketan egon da, Parisen

ULMAk, joan den urriaren 26an, "Be Basque Talent Conference"-ean parte hartu zuen, Parisen. "Be Basque Talent Conference" ekitaldia Bizkaia Talentek antolatzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren, unibertsitateen eta euskal zentro teknologikoen laguntzaz, baita gure inguruko enpresa traktoreen laguntzaz ere, eta helburua da maila altuan kualifikatutako enpresa eta profesionalen arteko harremanak ezartzea.

2008an hasi eta, orduz geroztik, 12 konferentzia antolatu ditu Europako 9 hiritan, eta aurten Parisen egon da. Konferentzia hauen misioa da talentua eta enpresak biltzea, eta Euskal Herrian aukera profesionalak agerian jartzea.

Erakundeen 100 ordezkari inguru

elkartu ziren profesionalak ezagutzeko. Jardunaldian zehar 50 aurkezpen baino gehiago, tailer teknikoak eta 700 bileratik gora antolatu ziren, garapen profesionalako milaka aukera erakusteko.

Foro berritzaile bat, zeina ULMAk aprobetxatu baitzuen lehenbiziko aurrehautaketa baten ondoren hautagai interesgarriak izan zitezkeen pertsona guztiak elkarrizketatzeko, eta, horiez gain, ULMA ezagutzeko interes berezia zuten pertsonak.

ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

Process Expo, ezin baztertuzko zita Inoxtruckentzat



Inoxtruck, ULMA Manutentzio Zerbitzuatako jarduera, Kanadako bere banatzaile ofizial Vestil Manufacturingi laguntzen aritu da Chicagon –AEB–, 2019ko urriaren 8tik 11ra egindako Process Expoko azken edizioan. Aipatu azoka, mundu mailan, janari eta edari prozesatu eta ontziratuaren industrian garrantzitsu eta esanguratsuenetakotzat hartzen da, eta janari eta edarien prozesatzean parte hartzen duten enpresa guztiak eta industria horretarako ekipamenduen fabrikatzaileak biltzen ditu.

Process Expo ezinbestean parte hartu beharreko hitzordua da, sektoreko azken aurrerapenak eta berritasunak ezagutu eta harreman komertzialak egiteko.

Nekazaritzako elikagaien sektorerako mantentze lanen ekipamendu %100 higienizagarri eta herdoilgaitz berritzaileen gama zabala ezagutzera emateaz gain, Inoxtruckek garrantzi handiko ekitaldi horretan parte hartzeko arrazoia izan da AEBko eremuan bere bezero zorroa zabaltzea eta Kanadako banatzaileekiko elkarlana indartzea.

ULMA HANDLING SYSTEMS

Cesar Nosti, ULMA Handling Systemseko zuzendari komertzial berria

Urriaren hasieratik, ULMA Handling Systemsek zuzendaritza komertzial berria dauka, Cesar Nosti buru dela, intralogistikako sektoreko multinazional handien zuzendaritzan esperientzia luzea daukana.

2002tik, Cesar Nostik Country Manager funtzioak bete ditu Ingalaterran, Esmena-n, Europa eta Ekialde Ertainerako Dexion-en, ondoren Espainia eta Portugaleko SSI Schaefer-en zuzendaritza komertzialarekin jarraituz, eta, azkenik Dematic-en, azken hamarkadan zehar.

Sarrera berri horrekin, ULMAk bere apustua berresten du estatuko merkatuan lidergoa izaten jarraitzeko, eta Europa, Latinoamerika eta Ekialde Hurbileko nazioarteko merkatuetan azken urteetan bizitako hazkundearekin jarraitzeko, U-MIND software logistikoa aurreratuaren suitaren babespean, eta DAIFUKU sektoreko mundu liderrarekin partnershiparekin.

"Nire ibilbide profesionalen pauso berri hau emateko motibazioa eman didatenak izan dira berrikuntzaren aldeko apustua eta azken urteetan ingeniariatzak garatutako aurrerapen teknologikoak", adierazi du Nostik, eta aitortzen du erakarria sentitzen dela kooperatibak bultzatzen duen gizarte eta enpresa proiektuan parte aktiboa izateko. "Hamarkada bat baino gehiago multinazional handien filialetan erantzukizun gero eta handiagoko postuetan eman ondoren, nire zeregin profesionala ULMA Handling Systemsen matrizean oinarritzeko aukerak izugarri erakarri ninduen, horrek esan nahi duen guztiarekin, enpresa murgilduta dagoen eraldaketa eta hazkunde prozesu integrean parte izateari dagokionez".



ULMA CONSTRUCTION

ULMA soluzio integralak 2019ko Joko Panamerikarretako kirol guneean

ULMAK ALDAMIO ETA ENKOFRATU SOLUZIO BERRITZAILEAK ESKAINI DITU, OBRAN BERTAN ASISTENTZIA ETENGABEA EMATEAZ GAIN

Callao Erregioko Kirol Hiria eta Villa Maria del Triunfoko Kirol Gunea dira Lima 2019ko Joko Panamerikarrak eta Parapanamerikarrak egin ziren egoitza nagusiak. Horien eraikuntzan parte hartu du ULMAk, aldazio eta enkofratu soluzio berritzaileak eskainiz, obran bertan asistentzia etengabea eskaintzeaz gain, eta horrek ahalbidetu du segurtasun, kalitate eta errentagarritasun kotarik altuenak erdieste hitzartutako exekuzio epeen barruan.

Villa Callaoko Kirol Hiriko koliseorako oinarri gisa erabili diren 14 metroko zutabeak ORMA enkofratu modularrekin egin ziren, eta, aldiz, murrak hormigonatzeko hautatu zen sistema COMAIN enkofratu modular arina izan zen. Lauza eta harmailen apeoari dagokionez, BIO Zinbria izan zen aukerarik onena, eta BRIO aldazioa

erabili zen eremu ezberdinetarako sarbidea erraztu eta laneko espazio seguruak bermatzeko.

Villa Maria del Triunfo kirol gunearen eraikuntza proiektuan, berriz, egituren aldaera zabala dela eta, fast-track metodologiaren bidez lan egin zen, bere ezaugarria izanik obraren exekuzioa eta planifikazioa aldi berean egin zirela; ondorioz, astero planoak aldatu behar izan ziren. Bezeroarekin etengabea komunikazioari esker, eta jokaleku berri bakoitzaren eskakizunak aintzat hartuz, ULMAk enkofratu eta aldazio soluziorik egokienak planteatu zituen bere ingeniari-taldeen bidez, zeina, egoera konplexuak konpontzeko soluzio bateratua eskaintzeaz gain, obra muntatzeko prestakuntza emateaz ere arduratu zen.



Villa Callao Kirol Hiria

Villa Maria del Triunfo Kirol gunea

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Bilboko MegaPark zentro komertzialak ULMA kanalei buruzko konfiantza erakutsi du berriro

ULMA KANALAK INSTALATU DIRA MERKATARITZA GUNEKO AISIARAKO GUNE BERRITUAN.

Altuera desberdinetako kanalak eta sareta aukera desberdinetakoak jarri dituzte **Megapark merkataritza guneko** aisiarako gune berrian, aparkalekuaren gainean.

Parke berria mugaritzeko, alboko **sareta artekatuak** dituzten kanalak instalatu dira. Sareta formatu horri esker, kanalizazio sistema oharkabean geratzen da, guztiz mimetizatzen baita hiri ingurunearekin.

Horrez gain, parkean sartzeko oinezkoentzako sarbideetan ere horrelako kanalak jarri dira, fundizioko saretarekin. Proiektuan instalatu diren sareta guztiek gaur egungo **Oinezkoek Erabiltzeko Hirigune Urbanizatuaren Irisgarritasun Araudia** betetzen dute.

Orain berriro den gunea erabili gabe zegoen lehen, saltoki handiz eta jatetxez inguratuta, eta orain aire libreko aisialdirako prestatu da, haurrentzako jolasekin eta berdeguneekin.



ULMA AGRICOLA

ULMA Agricolak proiektu bat egin du tomate hazitegi baterako Nigerian

Proiektua G12 negutegi bat da, erreten azpiko 6 m-ko altuerakoa, eta 2,2 ha-ko azalerarekin. Negutegiak "tximeleta" erako aireztapen zenitalak ditu, alboetakoak eta aurrealdekoak, itzala emateko pantailak, mugigailuak, ureztapen orgak eta kontrolagailu klimatikoa. Halaber, sandwich panelez eta polikarbonatoz estalitako nabe bat hornitu da, instalazio osagarrietarako, erneketa ganbarekin eta ereiteko ildoekin, eta 510 m³-ko ur tanga bat. Proiektua Nigeriako gobernuak tomate pastaren inportazioa murrizteko abian jarri duen programa baten barruan kokatzen da.



ULMA PACKAGING

Erraz irekitzeko flow pack ontzia industria medikorako

ULMA Packagingen soluzio berria flow pack enbaseetarako, enbase barrutik produktu mediko esterilizatuak atera ahal izateko, produktua ateratzeko prozesuan, mikroorganismoen eta/edo kanpotik produktura migratu dezaketan partikulen kutsadura mota oro galarazita.

Enbasatzeko soluzio horrek alboko bi soldadura ditu luzera, eta zeharkako soldadura bat, chevron modukoa.

Enbaseko soldadura guztiak **hermetikoak** dira eta ez dute **ihesik**, eta **zuritu daitekeen film** bat erabiltzen da, paperezko leihoa edo Tyvek batzuekin, **EtO bidez esterilizatu ahal izateko** (etileno oxidoa).

Enbasea chevron soldaduraren aldetik irekitzen da, eta guztiz ireki daiteke produktuarekin kontakturik izan gabe; horrenbestez, egon daitekeen kutsadura

oro saihesten da.

Flow pack teknologia eskaintzen duen malgutasuna dela eta, neurri desberdinetako produktuak enbasatu daitezke, **formatua arin eta erraz aldatuta**, proposamen honi beste teknologia batzuek ez bezalako moldagarritasuna

eskainiz. Gainera, sortutako enbasea produktuaren dimentsioetara moldatzen denez, gehiegizko neurria duten enbaseak saihesten dira. Horri esker, **filma aurrezten da** eta, beraz, ondorengo logistika kostuak ere murrizten dira.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

ULMA Conveyor Components arrakasta handiz aritu da Peruminen

Perumin munduko bigarren Meatzaritza Konbentziorik handiena da, eta bi urtean behin antolatzen du Peruko Meategi Ingeniariaren Institutuak (IIMP). Irailaren 16tik 20ra garatu zen 34. edizioa, Arequipan (Perú), eta aurtengo lema izan zen **"Meatzaritza: Zientzia, Berrikuntza, Teknologia eta Hezkuntza"**, eta helburua izan da meatzaritzaren sektoreak aurre egin beharreko **erronkak aztertzea eta eztabaidatzea eta herrialdearen garapen ekonomiko eta sozialerako duen garrantzia ezagutaraztea**, parte hartzaileen garapen profesional espezializatua indartzeaz eta ezagutza berriak dibulgateaz gain, zeinak meategiko lanean egindako ikerketaren, berrikuntzaren eta proba teknologikoen aplikazioaren ondorio baitira.

Meatzaritzako 150 profesional bako bako gehiagok, herrialdeko komunitate zientifikoko kideekin batera, meatzaritzaren energia industrian berritzeko aukerak aztertu dituzte konbentzioan, baita horiek ezagutzaren industria garatzen egiten duten ekarpena ere.

ULMA Conveyor Componentsek arrakasta handia lortu zuen, bisitei dagokienez, ULMA Construction Perurekin batera, eta ekitaldirako diseinatutako bi standetan egon ziren presente, ezagutarazteko kalitatezko eta iraunkortasunezko produktuak, eskakizun handiko produktuak kudeatzeko duten gaitasuna, eta, berrikuntzaren bidean, esperientziak baliatzeko gaitasuna.





“Seguruenik, Mont Blanc izan da denen artean mendirik gogorrena, batez ere alturako haize bortitzengatik eta hotzagatik, baina pozik gaude lortutakoagatik”.



ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

Taldeko langile eta bazkideek bateratu egiten dituzte beren ibilbide profesionala eta zaletasun zorrotzak, talentuarekin eta ahaleginarekin horma guztiak botatzen direla erakutsiz.

Aitor Ortueta, Jon Albes, Pablo Uzkudun eta Ander Ibargurenek ULMA Packagingen egiten dute lan eta mendizaletasuna partekatzen dute.

Pablo eta Jon ingeles eskola berera joaten ziren, eta bazekiten mendiko eskiaren, alpinismoaren, eskaladaren... zaleak zirela. Askotan hitz egin zuten horri buruz eskoletan. Solasaldi horietako batean, Pablok Joni aipatu zion Mont Blanc igo nahi izan zuela aitarekin, baina, hainbat arrazoi tarteko, ezinezkoa izan zela. Jon identifikatuta sentitu zen, berari ere antzeko zerbait gertatu zitzaion eta... Hala, bata bestearen arrimuan, partekatzen zuten amets hori gauzatzea erabaki zuten. Asmoa beste lankide batzuekin aipatu eta, harrigarria, Ander eta Aitor ere gehitu ziren abenturara. Espedizioa martxan zen, 4koa kopuru polita da! Bidaia planifikatu zuten, eta beste igoaldi batzuk egiteko ere aprobetxatu zuten irteera.

Igo zuten lehen mendia Weissmies izan zen (4023 m.), Saas Fee haranean (Suitza). Aterpea itxita zegoen igande hartan eta, horregatik, lehenengo saiakeran igo beharra zegoen. Gainera, 3.000 m baino gehiagoko garaieran dago, aklimatatzeko ezin hobeto. *“Weissmies oso mendi polita da, bere izotz jauziarekin eta seracekin. Asko disfrutatu genuen igoeran”*, esan digute.

Weissmiesen ondoren, haranez aldatu eta Zermattera jo zuten (Suitza); plana zen ibilaldi bat egitea Italiako Guide val d’Ayas aterpera,

izan ere, nahiz eta data horietan itxita egon, gune libre bat dauka negurako, oinarriko baliabideekin. Horretarako, material guztia garraiatu behar zuten (janaria, su txikia, lozakua...), baina hurrengo egunetako igoerek konpentsatuko zuten ahalegina. Asmoa zen igotzea Castor, Pollux, Roccia Nera... Egun haietarako iragarpena ona zen, eta bazirudien ibilaldiak arazorik gabe egin ahal izango zituztela baina, tamalez, goian pilatutako elurra espero baino askoz gehiago zen. Egin behar zuten ibilbideak glaziar inguru bat zeharkatu behar zuten, nahiko apurtua eta desegina. *“Beharbada, hori izan zen bidaiaren unerik arriskutsuena... serac ingurune hura zeharkatzen bagenuen, arrakalaren batean erortzeko arriskua geneukan, eta, horregatik, plana aldatzea erabaki genuen”*, kontatzen digu Jonek. Plana aldatu eta gero, Breithorn mendia igo zuten, eta egunean bertan Zermatt herrira itzuli ziren; egun haiek oso treking politak egiteko aprobetxatu zituzten... munduko zubi esekirik handiena bisitatzen, Randan (Suitza), Mer de Glace, Chamonixen (Frantzia)...

Azkenean, iritsi ziren Frantziara, *“gehien nahi genuena baino ez zitzaigun geratzen, azken helburua: Mont Blanc”*. Harritu egin ziren jakinarazi zietenean Goutereko aterpeak, zeina erreserbatuta baitzuten, ixtea erabaki zuela, negua aurreratu egin zela argudiatuta. Aukera bakarra aterpe libreria joatea zen, eta horrek esan nahi zuen

berrito ere ekipamendu guztia garraiatu behar zela. Horrela egin zuten, eta, irailaren 26an, igotzen hasi ziren, *“aurreko gaueko elurrarekin, mendia zoragarri zegoen, eta aterpeko balkoi naturaletik ikusitako ilunabarra magikoa izan zen!”*, kontatzen dute.

Gailurrerako egunerako iragarpena ona zen, baina, altuera hartu ahala, haizeak eta hotzak kalte egiten zuten, eta 4.362 metrora larrialdietako aterpean gelditzea erabaki zuten. Kantinplotetako ura izoztuta zegoen, eta te beroarekin eraman zituzten termoak besterik ez zitzairen geratzen. Aterpean hainbat soka-talderekin elkartu ziren, eta guztiek erabaki zuten atzera egitea, baina Packagingeko lau adiskideek hori ez egitera animatu zituzten.

Haizea biziagotu egin zen, eta zeregina zaildu ziren, baina, halere, gailurrera iritsi ziren (4.810 m), eta bakarrik zeuden, a zer nolako oparia! Denbora galdu gabe, argazkiak egin eta jaitsierari ekin zioten. *“Jaitsieran haizea are gehiago biziagotu zen, eta hainbat aldiz lurrera bota gintuen”*, kontatu digute. Gogo onez iritsi ziren aterpera, haizetik babestu, eta zerbait jan zuten. Oraindik 2.000 m-ko jaitsiera bat zuten egiteko, eta tartean bolearen pasaleku zaila, harriak eta arroak etengabe erortzen dira eta. *“Egun luze eta intentsu horren ondoren, eta pozik lortutakoagatik, Chamonixen geure buruari egin behar genion omenaldia besterik ez geneukan buruan!”*, gogoratzen dute.

Mendizaletasunean bat eginda

Aitor Ortueta, Jon Albes, Pablo Uzkudun eta Ander Ibarguren. ULMA Packaging



<< Argazkian, ezkerretik eskuinera: Aitor Ortueta, Jon Albes, Pablo Uzkudun eta Ander Ibarguren

“ULMA Taldea pertsonak eraiki dugu, eta horrela beharko du izan etorkizunean ere”.

LANDER DIAZ DE GEREÑU. ULMA Taldeko lehendakaria



ULMA Taldeko ohiko batzarrak, joan den ekainaren 14an, Lander Diaz de Gereñu aukeratu zuen ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko lehendakari berria izateko, 4 urteko aldi baterako. Karguan hilabete gutxi daramatzen arren, Landerrek ULMAren gaurkotutasuneko hainbat gai buruzko ikuspegia eskaini digu.

« Lander, oraindik hilabete gutxi dituzu ULMA Taldeko lehendakari moduan, baina... zer balantze egin zenezake denbora horretan? Espero zenuena?

Bat horrelako kargu batean sartzen denean, zaila da zer izan daitekeen pentsatzea. ULMA Taldeko negozioerik handienetako bateko lehendakaritzan lau urtez izan dudanez esperientziak dezente lagundu dit, baina horrelako aldaketa bat beti da jauzi kualitatibo bat.

Negozio bateko lehendakaritzan sartzen zarenean, mundu ezezagun bat irekitzen zaizu, han zegoela jakinda ere. Negozio horri buruz hartzen den ikuspegi globala guztiz beharrezkoa da kargua betetzeko, eta hainbat organotan jardun behar izateak, esaterako, Zuzendaritza Kontseiluan, Kontseilu Errektorean eta Kontseilu Sozialean, aukera ematen dizu zuzenean harremanetan egoteko eguneroko arazoekin borrokatu behar diren pertsonekin, baina batez ere epe luzerako arazoekin borrokatu behar direnekin.

ULMA Taldeko lehendakaritzan sartzeak Negozioan ematen den jauzi kualitatibo hori eskaintzen eta eskatzen du, baina oraingoan

Talde mailan. Horrek esan nahi du harreman zuzena izan behar duzula beste Negozio batzuetan zein Zerbitzu Zentraletan lanean ari diren kideekin, organo eta batzorde ugarietan parte hartu behar duzula, Negozio bati baino gehiagori eragiten dioten talde mailako gaiak lantzeko.

« ULMA Taldeko Kontseilu Orokorrean lehendakaritzako esperientziatik, eta jada hainbat hilabetez karguan jardunda duzun esperientziatik, zure iritziz, zein dira Talde mailan aurre egin beharreko erronkak?

Taldeaz hitz egiten dugunean, bi alderdi bereizi nahi nituzke: alde batetik, Negozioak daude, bere horretan. Horiek dira ULMA Taldea bermatzen duen oinarria. Horregatik, nik uste dut Negozio bakoitzak beharrezko estrategiak landu behar dituela ahalik eta errentagarritasunik handiena lortzeko. Iraunkortasun ekonomikoa da gurea bezalako proiektu sozioenpresarial baten zutabe nagusia, eta hori gure Negozioek beste inork ezin du eman.

Beste alde batetik, Taldearen berezko esparrua dago. ULMA proiektu sozioenpresarial bakar bat da. Ondorioz, arduraz jokatu behar dugu gure Negozioarekin, baina, aldi berean, Taldearekiko erantzunkidetasunez. Horrek esan nahi du sinergiak aprobetxatu behar direla, eta esfortzuak minimizatu, beste negozioko batzuek ibili dituzten bideez baliatuz.

Horrez gain, ULMA Taldeak Balio eta Printzipio jakin batzuk dauzka, eta horiek lagundu digute gaur egun garena izaten. Garrantzitsua da ULMA n sartzen diren belaunaldi berriek horiek presente edukitzea eta barneratzea, izan ere, horrek lagunduko digu Taldearen muina mantentzen eta aurrera egiten jarraitzen.

« Negozioetako gerente eta lehendakariekin egiten ari den HAUSNARKETA erantzuten ari zaie erronka horiei?

Inolako zalantzarik gabe. Hain zuzen ere, hausnarketa horren oinarrian dago beharrezkotzat jo zela mahai gainean jartzea azken urteetan ebidente iruditu zaizkigun hainbat kontzeptu, aitzitik, horiei buruz

ez delako behar beste eztabaidatu edo ez direlako inoiz idatziz jaso. Esaterako, Pertsonen Garapena, Gobernantza eta Konpromiso Soziala funtsezkoak dira gure proiektu sozioenpresarialean, baina, beste edozein estrategia bezala, ez badira kudeatzen, nekez garatu ahal izango dira. Hausnarketa horren ondorioz, Talde moduan eraikitzen jarraitu behar dugunaren oinarriak jarri ditugu, garen eta izan garen horretan bermatuta.

« POGU da gure erreferentzia instituzionala Talde mailan, bai sozialki bai enpresari dagokionez; Taldeko lehendakariaren iritziz, guztiz indarrean dago?

POGU onartu zenean, 1993. urte inguruan, argi ikusten zen beharrezkoa zela dokumentu bat edukitzea, ULMA Taldearen barruan egiteko moduak bateratzeko. Harrezkero, gauza ugari aldatu dira gure Negozioetan eta gizartean, eta, ondorioz, aldaketak egin behar izan dizkiogu dokumentuari. Aldaketa handiak egon dira (POGU II 2001ean eta POGU III 2005ean), baina ez handiak ere (aldaketa batzuk POGU IIIko zenbait artikulutan). Halere, bertsio guztiak gorabehera, jatorrizko espiritua mantendu da, ULMA Taldea eraikitzeko oinarria izan nahi zuena.

Gaur-gaurkoz, POGUK zeregin hori betetzen jarraitzen du, nahiz eta zalantzarik ez dagoen egokitze lanean jarraitu behar dugula, aurrean jarriko zaizkigun premia eta erronka berriei aurre egin ahal izateko.

« Beste kontu batzuetara joz, ULMA Taldearen etorkizuna arrakastaz lantzeko, Taldearen Kultura Kooperatibo indartsua beharko da, zeinean gure pertsonak baitira etorkizun hori eraikitzeko funtsezko piezak. Zure iritziz, zer pauso eman beharko liriateke norabide horretan?

ULMA Taldearen etorkizunaz hitz egiten dugunean, ez dugu arrabola, orgetan, negutegietan eta horrelakoetan pentsatu behar. ULMA Taldea pertsonak eraiki dugu, eta horrela beharko du izan etorkizunean ere. Gure Negozioak pertsona horiek proiektu sozioenpresarial bat garatzeko erabili dituzten erremintak dira, eta proiektu horrek onura ugari ekarri dizkio

gizarteari. Horregatik, gure pertsonengan ongi errotutako Kultura Kooperatibo bat funtsezkoa da aurrera jarraitu ahal izateko eta Talde moduan mantentzeko, geure Negozioak (oraingoak eta etorkizunekoak) modurik efizienteenean kudeatzeko, baina nor garen eta nondik gatozen ahaztu gabe.

Horretarako, garrantzitsua da mekanismoak sortzea Kultura hori, definitzen gaituzten Balio eta Printzipio horiek, ULMA n lan egiten dugun pertsona guztiei transmititzeko. Ez da zeregin erraza izango, eta gutako bakoitzaren laguntza beharko da. Kultura Kooperatiboa ez da soilik goitik behera transmititzen (nahiz eta baita horrela ere), baizik eta norabide guztietan: lankide bileretan, lanpostuetan, atsedenekuetan... Gure erakundeen barruan Kultura Kooperatibo hori mantentzea eta hedatzea ULMA Taldea osatzen dugun guztion zeregina da.

« Azkenik, ULMA Taldeko kolektiboari helarazi nahi dizun mezuren bat?

Nahiz eta badirudien krisi garaia datozela, Negozio batzuk errentagarritasun onak lortzen ari dira, eta beste batzuk positibo ari dira eboluzionatzen. Hori oso lagungarria da arazoak izaten ari diren Negozioentzat edo bidean oztupoak aurkitzen ari direnentzat. ULMA bezalako Talde bateko kide izatea indargune handia da, gure historian zehar frogatu denez, Negozioei krisi eta zailtasun uneak gaintzen laguntzen dielako. Argi dagoena da harrotasunez ikusi behar dugula zer garen, eta ohartu behar gara interkooperazioa dela gure indargune nagusietako bat Talde gisa aurrera egin ahal izateko. Denon laguntzarik gabe, ezinezkoa izango zen iritsi garen lekuraino iristea, eta horrela jarraituko dugu aurrera egiten, gutako bakoitzaren eta guztion laguntzarekin.

ULMA Embedded Solutionsek 10 urte bete ditu

Urrian, 10. urteurrena bete zuen ULMA Embedded Solutionsek. Urte hauetan guztietan, bezero handiekin proiektu zorrotzetan lan egiteko aukera izan du, hainbat sektore eta enpresarentzat. Horri esker, aukera izan du datozen urteetan aurre egin beharreko erronka estrategikoen oinarri izango diren ezagutza eta esperientzia sortzeko.

2018. urteaz gero, ULMA Taldearen bederatzigarren negozio gisa, merkatu nazionalen presentzia nabarmen handitzea lortu du, baita nazioarteko merkatuetan lehen salmentak egitea ere, CAF, Fagor, Navantia, Airbus eta pareko enprekin lankidetzan.

Mugarri garrantzitsu hori aprobetxatuz, ULMA Embedded Solutionsek eskerrak eman nahi dizkie enpresa proiektu honetaz fidatu, eta berori sendotu eta errealitate bihurtzen lagundu duten pertsoneri, jarduera proiektibo gisa sortu zenetik hasi eta gaur egunera arte.

Protagonistetako batzuk euren ikuspegiaren berri eman digute.



"ULMA Embedded Solutionsek 10. urteurrena bete du, denbora tarte horretan eskuratutako sektore anitzeko esperientzian oinarritutako hazkunde iraunkorreko egoeran bete ere. Ingeniaritza elektronikoko eta sistemetako jatorrizko negozio ildoei Kalitate Automatizatukoak eta IoT gehitu zaizkie, eta, horiei esker, gure negozioa handitu eta dibertsifikatu ahal izan dugu, eta gure bezeroei irtenbide integralak eskaini ahal izan dizkiegu. Bilbon eta Madrilen sortutako taldeei esker, gure merkatua zabaldu izanak aukera ematen digu hazkunde eta dibertsifikazio ildo berean jarraitzeko, eta bezero zein zerbitzu berriak eskuratzeko."

ASIER OLAGUENAGA. ULMA Embedded Solutionseko gerentea



ULMA Embedded Solutionseko taldearen zati bat Bilboko bulegoaren inaugurazioan >>



JULEN BARRENA
Hardware garapeneko ingeniaria

"10 urtetatik hona asko ikasi dugu ULMA Embedded Solutionsen. Enpresa baten sorrera ikusi dugu gure begiekin, lan eta esfortzu handia suposatu duten hainbat ildotan lan egitea tokatu zaigularik: proiektu kudeaketa martxan jarri, komertzial lanak, kalitate sistema sortu, euskara plana abiatu... Horrek guztiak, pertsona moduan ere garapen handia ekarri digu eta espero dugu beste hainbat urtetan ULMA Embedded Solutionsekin batera garapen horrek etenik ez izatea"



OMER ARREGI
Hardware garapeneko ingeniaria

"Aukera bikaina izan da ULMA Embedded Solutions kooperatiba sortzeko ULMA Taldeak enpresa berriak sortzeko ematen dituen erraztasunez baliatzea. 10 urtetako ibilbide honetan lankidetzan oinarrituriko enpresa kooperatibo baten sorreraren partaide zein lekuko izan naiz eta lan horretan nire ekarpena egiteko aukera izan dut, esperientzia ederra izan da benetan, bai profesional moduan zein pertsona moduan garatzeko. Plazer bat izan da lankideekin esfortzu, zailtasun eta batez ere pozak eta lorpenak elkarbanatzea ibilbide honetan."



IÑAKI IDIGORAS
Software ingeniari seniorra

"Gogoan daukat etorri ginenekoa. Egun beteta daukagun eremua hutsik zegoen oro. Dena egiteko. Mahaiak, ordenagailuak, domeinua, posta elektronikoa... egunak behar izan genituen oinarritzko azpiegitura muntatzeko, eskulan elektronikoa egiteko mahaia barne. Alemanian ferria... Hori dena baina, erraza izan zen gero zetorrenaren aldean. Alde komertziala, marketina, administratiboa... ingeniari lanez gain. Guztietan zailena, baina, sentsibilitate desberdinen arteko pertsonen elkarlana gertatu zaigu. Eta, paradoxikoki, horrexek ahalbidetu digu bizirautea, lauburuaren gisan, energia desberdinak elkarrekin elikatuz. Pertsonalki eta talde gisa garatu gara esperientzia honetan. Ez ditugu alferrik hamar bete. Euskeraz, inposiblerik ez baita. Ezina, ez egina da. Eta guk, ULMA Embedded Solutions egiten dugu. Hamaika ikusteko gogoz gara"

ULMA Taldearekin hitzartutako jantokietarako ordainketa sistema berria

Duela gutxi aldatu egin da Oñatin eta Legazpin hitzartutako jantokietan ordaintzeko sistema, eta, joan den urriaren 1az geroztik, dagoeneko mugikorrarekin zein txartelarekin ordaindu daiteke. Mugikorrarekin ordaindu ahal izateko, Up GourmetPayren app ofiziala deskargatu behar da. PDF bat daukagu azaltzeko, baita bideo tutorial bat ere, ULMA Taldearen Gaurkotasun atalean, Begira onlinen, <http://begira.ulma.com/eu>.

Hitzartutako jatetxe batzuetako arduradunekin eta sistema berria erabiltzen ari diren ULMAko kide batzuekin hitz egin dugu, esperientzia nolakoa izaten ari den azaltzeko.

ZOZKETA

Ordaindu sakelako telefonoarekin ULMAren jatetxe hitzartuetan, eta parte hartu gourmet esperientzia baten zozketan*.

(*Parte hartu abenduan eta urtarrilean app-aren bidez ordaintzen duten lagun guztien artean egingo dugun zozketan.

Zozketa: otsailaren 14an.



BIKOITZ

“Sistema berriarekin denbora gutxi daramagunez, kobratzeko garaian adiago egoten gara, izan ere, egiaztatu egin behar da ordaintzen duen pertsonaren izena, eta batzuei azaldu egin behar diegu nola jokatzeko dugun. Unerik txarrenak puntako orduak izaten dira, baina prozesua bizkortzen ari gara eta, pixkana, ULMAko kideak ezagutzen ari dira mugikorrarekin ordaintzeko modu berria. Aurreko sistemarekin alderatuta, onurak, batez ere, barruan ikusten ditugu, ez dugulako fakturarik egin behar eta berehala kobratzen dugulako; askoz arinagoa da”.

USOA SAGREDO



EMPRESAGINTZA

“Sistema berriak asko erraztu digu lana, kobratzeko garaian, oso pozik gaude, ordaintzen dutenean gehienek mugikorraren bidez egiten dutelako, eta ticketa erakusten digute eta guretzat oso erraza da ordenagailuan egiaztatzea. Ez dugu inolako arazorik izan, nahiz eta hasieran oso ganean eta adi egon behar izan dugun, sistema berrira egokitu arte. Barruan, kobratzeko ere zuzenago egiten dira, dagoeneko ez dugu fakturatu behar, eta askoz erosoagoa da”.

MIGUEL ÁNGEL FREIRE



ETXE AUNDI

“Egokitzea gogor samarra izaten ari da, denbora pixka bat galdu behar dugulako kobratzea mahaietan kontrolatzeko, eta tokatu zaigu pertsona batzuk ez direla aldaketa egitearen aldekoak: daukaten mugikorraren ahalmengatik, edo ez dutelako aplikazioa jaitsi nahi, gehiago erabiltzen dute txartelarekin ordaintzea. Mugikorrarekin ordaintzen dutenekin, ordaintzeko egiaztariak numerazioa daukanez, atseginagoa da egiaztatzea, horretan oinarritzen garelako. Eta abantailarik handiena da ez dela faktura behar eta azkarrago kobratzen dugula. Gainerakoan, denok joango gara poliki-poliki egokitzen”.

MARGARITA ROMARIZ



Zer iruditzen zaizu ULMAko jantoki hitzartuetan ordaintzeko sistema berria?



DANIEL MOLINUEVO
ULMA Agrícola

“Bakarrik erabili dut sistema mugikorreko aplikazioaren bitartez, txartelarekin ibiltzea baino erosoagoa gertatzen zait, horrekin noiz pasatzen duten itxaron behar baita, ordainagiria atera, etab. Sistemaren onura nagusia erosotasuna da, irteteko ilaran egon beharrik gabe; ordainketa plateren arteko itxaronaldian balioztatzen da eta arinago irteten gara. Gainera, informazioa e-mailez eta berehala jasotzen denez, hortxe duzu egindako ordaintzeko ebidentzia. Beste abantaila bat da leku bakoitzean non bazkaldu duzun kontrolatu dezakezula, eta hilean zehar zenbat egunetan erabili duzun”.



MARIA SENDIN
ULMA Manutentzio Zerbitzuak

“Kontua da beharrezkoa zela ordaintzeko sistema eguneratzea, aurrekoa motela zelako, eta batzuetan terminalek arazoak ematen zituzten. Sistema berria oso azkarra da, app-ari buruz ari naiz, eta, garrantzitsuenak, janaria kobratzeko ez dut itxaron behar amaitu arte, eta, orduan, bazkaltzeko tartea laburtu egiten da. Espero dut denborarekin aplikazioari funtzionalitate berriak gehituko dizkiotela”.



AMAIA MADINABEITIA
ULMA Advanced Forged Solutions

“Aurreko txartelarekiko APP-aren bitartez egin daitekeen ordainketa eta jarraipena dira abantail nagusiak. Horretaz gain, ez diot beste aparteko abantailarik aurkitzen. Txartelaren erabilera zailagoa da APPa ez baldin bada erabiltzen, datafona dela medio eta ez duzu gastuen laburpena ikusterik”.



ROBERTO GUTIERREZ
ULMA Packaging

“Aste gutxi daramat aplikazioa erabiltzen. Funtzionamendua oso erraz eta intuitiboa da. Aldaketarekin, prozesuak arintasuna irabazi du, eta badirudi ez dela hainbeste ilara sortzen ordaintzeko egiteko orduan. Hasieran arazotxoaren bat egon zen wifia estaldurarekin, baina ematen du konpondu dagoela. Ordaindu eta berehala, ordaindu izanaren mezu bat iristen zait mugikorrera, eta horrek lagundu egiten du hilean egindako gastuen kontrola erosoago egiten”.

Atal honetan ULMA n gure pertsonak eta ingurunea zaintzeko egiten dugun jarduera sozialari buruz informatzen zaitugu, gure eraldaketa sozialarekin dugun konpromisoa bideratzeko, eredu humano eta jasangarriago baterantz.

ULMAren jarduera soziala 2019



goienakluba



omenaldia ULMAko erretiratuei

Joan den ekainaren 7an ULMAko erretiratuei omenaldia egiteko jardunaldi bat egin zen. Lehen eskutik ezagutu zuten ULMAko Negozioen errealitatea, eta, ondoren, ULMAko Negozioetako batzuk bisitatzeko eta ezagunak agurtzeko aukera izan zuten. Egun hunkigarria izan zen, topaketa eta oroitzapen atseginez bete, eta, buru emateko, herri bazkaria egin zen Oñatiko Zubikoa kiroldegian.

M Mondragon Unibertsitatea



first lego league

ULMAk Zuazola-Larraña institutuko batxilergoko gazte talde bat babestu du First Lego Leaguen. Lehiaketaren xedea da 10-16 urteko gazteengan bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatzea, ikasteko esperientzia bakanetatik abiatuta. Eta hori guztia berrikuntza, sormena edo talde lana bezalako balioen bitartez. First Lego League lau FIRST programetako parte da, STEM gaiei buruzko interesa sustatzeko (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematikak).

B Bidebarri



jarri martxan

Yoga, Pilates, Hipopresiboak edo luzaketak dira ULMAk eskaintzen dituen aukerak gure kideen osasuna eta ongizate orokorra sustatzeko. 300 lagunek baino gehiagok probatu dute dagoeneko aukera horietakoren bat estresetik deskonektatzeko eta euren gorputzarekin konektatzeko, malgutasuna hobetzeko eta konpentsazio ariketak ikasteko, laneko zein lanetik kanpoko jardueraren ondorioz sor daitezkeen arazoak prebenitu edo arintze aldera.

Izan Osasuntsu



haur tailerrak

Urtarrilean eta ekainean, eskolak goizez baino ez daudenez, gurasoei familia eta lan bitzita bateragarri egiten laguntzen ahalegindu gara. 4 urtetik gorako ia 200 haurrek parte hartu zuten Haur Tailerren laugarren edizioan, arratsaldeko 14:00etatik 18:00etara. Gurasoak, umeak disfrutatzen ari zirela eta, lasai joan ziren lanera.

www.ekokilometro.ulma.com

460 lagun ari dira dagoeneko parte hartzen mugikortasun jasangarria saritzen duen programan.

300.000 ekokilometro egin ditugu, 71.000 kg CO2 gutxiago isuri dugu atmosferara eta 7.000 eurotik gora banatu ditugu sarietan.

Erosketak egiteko opari txartelak Eroskin, Forum Sporten, Oñatiko dendarien elkarteetan... Eta, aurki, oparien katalogoa handituko dugu, eta bonuak izango dituzu ULMAk presentzia daukan beste herri batzuetako denda elkarteetan erosteko.

Zeren zain zaude erregistratzeko? Zugandik hurbil norbait ari da dagoeneko parte hartzen eta sariak irabazten. Galdetu berari!

betaurrekoak Senegalerako

Uztailean 600 betaurreko baino gehiago jaso genituen Senegalera eramateko: betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak. Abuztuan, Ndank Ndank elkarteak kideek –horien artean ULMAko pertsonak–Senegalera eraman zituzten, bista graduatzeko makina batekin batera. Horrela, Senegaleko pertsona askoren ikusmena hobetu da.

ULMAk emandako elkartasunagatik, Ndank Ndank elkarrekin eta senegaldarrek eskerrak eman nahi dizkigute lerro hauen bitartez



lehen laguntzak

Martxotik maiatzera bitartean lehen laguntzei buruz egindako ikastaroei harrera ona izan dute. 60 lagunek desfibriladore bat erabiltzen ikasi zuten, baita ere oinarriko kontzeptu eta arauak larrialdi mediko bat gertatzen denean jarduteko.

Pertsona batzuk itxaron zerrendan geratu zirela ikusita, 2020an ikastaro gehiago antolatuko ditugu.

brasilen kooperante

2017ko urtarrilean, ULMA Architectural Solutionseko bazkide Etor Arregik Brasilerara bidaiatu zuen Mundukideko kooperante gisa jarduteko. Urte eta erdi horretan, bere lanaren oinarria izan da dauden kooperatiben kudeaketa laguntzea. 2019ko ekainaz geroztik, famili nekazaritzako ekoizleen ekintzailertan eta kooperatiba berriak sortzen laguntzen dihardu. Bi urtez lanean aritu eta gero, Etorrek egonaldia beste urte batez luzatzeko eskatu du orain.

“Hasierako ahalegina sendotu egin behar da, eta uste dut oraindik ere behar dutela hainbeste eskertzen duten babesa eta laguntasuna.

Benetan gogobetegarria da negozioak kudeatzeko moduan nola eboluzionatzen duten ikustea” ETOR ARREGI



argazki lehiaketa

Argazki lehiaketaren XIV. edizioan “ura” izan zen aukeratutako gaia. 400 irudi baino gehiago jaso ditugu. Guztien artean, 12 argazki hautatu ditugu 2020ko egutegia osatzeko, eta aldizkariaren ale honekin batera eranstean dizugu.

plastikoa aurrezte

ULMAk kafea hartzen duten lagunen %50ek euren kikara erabiltzen dute dagoeneko, eta plastikozko ontziak aurrezten dituzte. Horrek esan nahi du, hileroko, 30.000 plastikozko edalontzi aurrezten direla, Bidebarri hornitzailearen datuen arabera.

Gainera, ULMAko kooperatiba guztietan ur pitxarrak daude bilera geletarako, bisitei eskaintzen zitzaizkien ur ontziratuak botilatxoaren kontsumoa murrizteko, eta orain iturriko ura kontsumitzen dugun, plastikorik gabe.



abenduaren 16ra arte

Ekokilometro programako puntu solidarioen trukeri esker, 210€ kanpaina honetako jostailuak erostera bideratuko dira.

eta gainera...

| Apirilean 600 kilo arroz eta pasta baino gehiago jaso genituen, eta Acoer-Honduras GKEak dagoeneko helarazi ditu Hondurasera.

| Uztailean 4an, Goienerek –energia %100 berriztagarriaren sorkuntza eta kontsumoko talde kooperatibo– faktura elektrikoa ulertzen lagundu zigen. Joaterik izan ez bazenuen, hau bisitatu dezakezu: www.goienar.com.

| Mondragon Unibertsitateko Pertsonen Talentuaren Kudeaketa Estrategikoko Masterreko ikasleek ULMAk aurtengo proposatutako erronka landu zuten: “ULMA Taldean pertsona beharren planifikazioa”.

| Urtero bezala, ULMAko zerbitzu medikoak gripearen aurka txertatzeko kanpaina abiarazi du,

eta 150 lagun inguruk hartu dute txertoa.

| ULMA Taldean Berdintasun Batzordea sortu da, berdintasunaren aldeko eraldaketa soziala lantzeko helburuarekin.

| ULMAko boluntarioek parte hartu zuten Elikagai Bankuak urtero antolatzen duen “Bilketa Handia”-n.

| ULMAko 80 kide baino gehiago hurbildu ziren odola ematera Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartarekin batera antolatzen dugun kanpaina.

| Energiaren Euskal Erakundeak mugikortasun elektrikoari buruzko hitzaldi bat eskaini zuen ULMAk, eta 30 lagun joan ziren. Guztiek probatu ahal izan zuten hilabete batez utzi ziguten auto elektrikoa, etxetik lanera

joateko desplazamenduan.

| 26 pertsona bat egin zuten ORBEA txirringa elektrikoak erosteko programarekin, eta jada erabiltzen dute txirringa elektrikoa lanera joateko.

| ULMAk Urban Mobility Challengeko lehen postua lortu du. Hirugarren lehiaketa enpresa eta unibertsitate jasagarrien artean, lehenengoa nazioarte mailan.

| 200 ikasle gaztek baino gehiagok bisitatu gintuzten aurten, Mondragon Unibertsitatea, Zuazola edo Elkar Hezi bezalako zentroetatik, besteak beste.

Informazio gehiago albiste honi eta beste batzuei buruz, hemen: www.begira.ulma.com/eu



FIRST LEGO LEAGUE

Euskadi
MONDRAGON

IZAN BOLUNTARIO FIRST LEGO LEAGUE EUSKADI MONDRAGONEN

Zientzia eta teknologiarekin dibertitu nahi baduzu, izena eman eta gogoko duzun rola aukeratu **2020ko otsailak 8an** Arrasaten izango den FIRST LEGO League txapelketan parte hartzeko.

EMAN IZENA!

<https://boluntarioakfleuskadi.innobasque.eus>



FIRST LEGO LEAGUEren edizio honetan, ULMA n Oñatiko bi talde gazte babestu ditugu, ikastetxe hauetakoak:

 Txantxiku
Ikastola



 **ULMA**

ERRETIROAK: 2019ko irailaren 1etik abenduaren 31ra

Jose M. Lazkano



Rosa Agiriano



Iñaki Bilbao



Juan Ramón Berecibar



Anton Marin



Juan Mari Ibabe



Juan Manuel Azpiazu



Pedro Aguirre



Eskerrik asko denoi eta ondo pasatu! **Zorionak**